

# Ekimen solidarioak <sup>413-1</sup>

## Nazioarteko lankidetzak

**E**ROSKI sozialki arduratsua den erakundea denez, munduko desberdintasunekiko eta beharrekiko sentsibilizatuta gaude.

### Jostailuak biltzeko kanpaina Gurutze Gorriarekin

Abenduko bi egunetan, gerra jostailuak eta sexistak ez diren jostailuak biltzeko kanpainan parte hartu ahal izan zuten gure bezeroek. Zaurgarritasun sozial eta ekonomikoaren arriskuan bizi direlako jostailuak erosi ezin dituzten familietako haurren premiak estaltzeko erabili dira dohaintzak guztiak.

### Produktuak emateko programa

Elikagaiak ez diren produktuak (jostailuak, oinetakoak, arropa, ikasmateriala eta produktu optikoak, besteak beste) ematen dizkiegu Latinoamerikako haurrei, giza garapen jasangarrirako eta nazioarteko lankidetzarako lan egiten duen Munduko Haurren Federazioaren bitartez. 2018an, 169.200 eurokoak izan ziren dohaintzak.

### Elkartasun Izarra

Laugarren urtez jarraian, EROSKI Elkartasun Izarraren kanpaina egin du Eguberrietan. EROSKIren eta VEGALSA-EROSKIren denden bezeroei esker, 2018an, 63.000 euro batzea lortu genuen izarrak salduta. Haurrei laguntzeko erabili da, UNICEFen eta EROSKI Fundazioaren bitartez; izan ere, kontsumitzaileek kausa horri eman zioten bozka gehien.

### Indonesiako tsunamia dela-eta egindako larrialdi kanpaina

EROSKIren eta haren bezeroen elkartasunari esker, 30.000 euro bildu genituen urrian Indonesiako tsunamian pairatu zutenen alde; UNICEFekin koordinatutako kanpaina batean banatu zen laguntza: edateko ura helarazteko eta saneamendurako erabili zen, izurriterik sor ez zedin; horrez gain, osasun arretoa eta nutrizio egokia emateko erabili zen.

### Borondatezko lan korporatiboa

EROSKIren kooperazio-eta elkartasun-printzipioei jarraituz, hamar urte baino gehiago dira **MUNDUKIDE**ekin, Hirugarren Munduko herri behartsuen garapena sustatzen duen elkartarekin, elkartanean hasi ginenetik. Proiektu horiei buruzko informazioa zabalitzen laguntzen dugu, EROSKI CONSUMER aldizkariaren eta [www.consumer.es](http://www.consumer.es) webgunearen bidez. Era berean, Gizarte eraldaketarako borondatezko lan korporatiboko programan parte har dezakegu. MUNDUKIDEK, Mondragon Unibertsitateko Lanki ikerketa-zentroak eta Brasilgo Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimenduak (MST) antolatzen dute programa hori. Lau EROSKI-langile borondatezkoak izan dira eta banaketari eta merkaturatzeari buruz dakitena erabiltzen dute Paraná Estatutako erdialdeko eskualdearen garapen

